

Argibideak, gutunak idazteko eta marrazkiak egiteko

Gutun eta marrazkiek egileak aukeratutako estiloa izango dabe, **baina edukiak zerkusia izango dau jasoko daben pertsonen egoeragaz eta bizi dogun testuinguruagaz**. Ezertan hasi aurretik, lagungarri izan daiteke geure buruarengan pentsatu, egoitzan gagozanok geu garala imajinatu eta zer entzun gurako edo beharko geunken (mezuak adere emonez, gertutasuna, ulermena, konfiantza, esker ona,... adierazoz) hausnartu. Euskera zein gaztelaniaz egin daiteke.

Gutun eta **marrazkiak sinatu egin daitekez ala ez**, baina ez ahaztu jasotzaileei asko gustatuko jakela nondik datozen, nor bialtzen dituan, bialtzaileraen adina... ezagutzea.

Formatuari dagokionez, emaila idatzi daitekegu, baina idazkia letra handiz egitea eta helbide elektronikoari eranstea da egokiena. Marrazkiak koloretan eskaneatu, egoitza guztietan kolorez inprimatzeko aukera izatea segurua ez bada be.

Hiru egoera desbardin kontuan hartuko doguz:

- Ekimenean parte hartzen daben egoitzetako **pertsona jakin bati gutun edo marrazkia bialdu** gura deutesenak. Posta elektronikoaren gaian haxe jarriko dabe: "Gutun/marrazkia xxx egoitzako xxx(r)entzat". Mezuok zuzenean bialdu ezkeru, onartu daikezan egoitzarik dagoan aztertuko da (kasuz kasu baieztatuko da).
- **Gutun/marrazkia egoitza jakin batera bialtzeko**. Gaian hau jarri: "xxx egoitzarako gutun/marrazkia".
- **Pertsona edo egoitza ez jakin bati bialtzenez jakozan gutun/marrazkia**. Gaia: "Gutun/marrazki irekia".

Parte hartu eizue, danon artean une honetan gizatalderik ahulenetako kide diran pertsona nagusiei gure hurkotasuna eta maitasuna helarazi deiegun.

Eskerrik asko!!!